

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Irakurleak galdezka



KENPEI-CC BY SA

Kaixo. Gaztelaniazko *flor de pascua* (zelan da euskaraz?) bat daukat. Hasieran zeuzkan hosto gorriak jausi zitzaizkion eta orain ez dira berriz ateratzen. Zer egin beharko litzateke ateratzeko? Nerea Sainz de Murieta (Sopela).

Kaixo Nerea. *Euphorbia pulcherrima* Pazko lorea deitu izan dugu eta poinsetia izenez ere topatuko duzu.

Aipatzen dituzun hosto gorri horiek ez dira benetako hostoak. Brakteak dira, adarraren punttaren punttako loreak inguratzen dituztenak. Loreen bueltan daude, haiek babestu eta intsektuak erakartzeko. *Euphorbia* genero honetako landareen loreak ttiki-ttikiak dira, baina “hosto” gorri horiekin ikusgarri asko bihurtzen dira. Beraz, hosto gorriak landarea loratzera doanean soilik agertuko dira. Sekulakoa bada ere, ez da betiko jantzi.

Landarea berdetan euste soilak nahikoa lan izan ohi da. Toki argitsu eta epela behar du. Ura tamainan eman, hostoak ez busti eta lurra lehortu arte ur berririk ez eman.

Berez udaberrian loratzen da, negua amaitzean. Horixe da kakoa, negua pasatzea. Pazko loreak neguko egun motzak zenbatzen ditu. Argi gutxiko 80 eta 100 egun artean igaro ondoren loretara joko du eta “hosto” gorriak ireki. Naturalki martxo aldera egiten du, baina muintegietan loraldia eragin egiten zaio. Abuztuaren amaiera aldera eguzki orduak kentzen zaizkio, ilunpetan sartuz, horrela landareak negua iritsia dela usteko du eta urte amaiera alderako loratu. Eguberrietako txoraldian eta euroaldian merkaturatzeko pronto.

Tokikotzen

BUKATZEN EZ DEN KATEA osatzen ari naiz Madeirako bueltaxkaren etekin. Izan ere hura landare-jana, hura janka.

Gure mendienak baino dezente handiagoko malkarrak dira hangoenak. Horrek nekazariei lana zaildu die, baina baita asmoak eta pentsabideak ere. Zaildu eta zorroztu. Ikustekoak dira hango terrazen plantak. Nahi gabe ere, harri haiek bata bestearen gainean jarri dituztenen eskuak irudikatzen dira. Zorabiatzeko moduko pendiz haietan bizimodua moldatu dutenak, haiek bai artistak! Eta artistek pizgarriak behar. Eta pizgarriak munduak sortzen ditu; tokian tokiko munduak, bertakoak. Eta pentsakeraren mundu horiek ez dira axaleko. Sumatu baldin badaiteke ere sakoneko hartu eta emanak azaleratzen du toki bakoitzeko mundu hori. Uharte honetan, adibidez, bi landareekin duten ohiturak arreta piztu dit. Lagun bidai-dearen amak, Maria bertako alabak, kautxu-landarea (*Ficus elastica* cv. Decora) eta farfugio pintarra (*Farfugium japonicum* cv. Aureo-maculata) ezin ditu etxean ikusi. Bere onetik ateratzen dute landareok hilerititik kanpo ikusteak, eta bere aitak hala esaten omen zuen: landareotakoren bat etxeren batera inguratuz gero, hiletaren bat ez dela urruti izaten... Kanpotik, Portugalek izandako koloniatatik ekarritako landareak dira biak; India aldetik lehena eta Japoniatik bestea. Beren kulturaren kolonietan hildako milaka eta milaka lagun portugesez eta bertako txertatuak izango dituzte bere iruditerian landare haiek tarteko. Kanpokoak direlako soilik ere izan daiteke, bestetik bereiziz sortzen baitugu gure burua. Bere burukomin eta guzti. Geure minen etxeetan lasai asko darabilzkgu bi landareok...

37.152.300.000



Jaki ekologikoen kontsumoa gorantz, urteko %3-6 artean. 2008. urtean izenburuko euro pilatzen hori gatzatu omen genuen munduan ekologikoak erosten. Agidanean 2009an ere antzeko joera izan da. Erdia baino gehixeago European eta hamarretik lau AEBetan. Beste apurra hor-han.

VIVEROS
Fadura

Konifera eta zuhaixken
produkzioa eta lorezaintza

Mota guztietako
zuhaitzen salmenta

Larrañazubi bidea, 15 · 48640 BERANGO (Bizkaia)
Tel. 618 86 63 41 · 657 79 08 11